

UDALAREN OSOKO BILKURA **Bilkuraren akta**

Ohiko bilkura

Data: 2020ko maiatzaren 20a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2020ko ekainaren 10eko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia), lan-arrazoiengatik.

Gai-zerrenda

1. Alkatetzaren ebazpena, ate itxiko ezohiko bilkura egiteari buruzkoa.
2. Onestea 2020ko martxoaren 11ko ohiko bilkuraren akta.
3. Onestea 2020ko martxoaren 9ko ohiko bilkuraren akta.
4. Bertan behera uztea 2020ko apirilko ohiko osoko bilkura eta informazio-batzordeen saioak.
5. Alarma-egoerak dirauen bitartean Udalbatzaren eskumenak eta eginkizunak gauzatzea.
6. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
7. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.**
 - 7.1. Luzatzea udal-igerilekuko eta Udaleko beste kirol-azpiegitura batzuen zerbitzuaren kontratua.
 - 7.2. Bide publikoa mahai, aulki eta mahaitxoekin okupatzeko arauak.
 - 7.3. Luzatzea esparru libreak, parkeak, lorategiak, ezpondak, lorategietako bideak eta zuhaiztiak mantentzeko zerbitzuaren kontratua.
 - 7.4. Alderantzizko lehentasunezko kaleetan trafikoa eta ibiak arautzeko udal-ordenantza.
 - 7.5. Bertan behera uztea lorategi pribatuei urreztatzeko ura hornitzeko zerbitzua.
 - 7.6. EH Bildu Oion taldearen mozioa, zerbitzuak udalekotzeari buruzkoa.
8. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**
9. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea.**
10. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**
 - 10.1. Tasen eta zergen bilketa bertan behera uzteko alkatetzaren ebazpena.
 - 10.2. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari erantzuteko laguntza-programetarako deialdien zerrenda.
 - 10.3. Daniel Salvador zinegotziaren mozioa, Oyón-Oiongo ekonomia berraktibatzeke mahai politiko eta soziala sortzeko.
 - 10.4. Daniel Salvador zinegotziaren mozioa, udalerrian Babes Zibileko talde bat sortzeko.
 - 10.5. Daniel Salvador zinegotziaren mozioa, ehun sozioekonomikoa berreskuratzeko 150.000 euroko aurrekontu-partida onesteko.
 - 10.6. Daniel Salvador zinegotziaren mozioa, zerga-neurriei eta kostuen murrizketari buruzkoa.

- 10.7. 2019 ekitaldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren ebaluazioa.
 - 10.8. Onestea zerbitzuak prozedura irekiaren, mugatuaren edo negoziatuaren bitartez kontratatzeke administrazio-klausula partikularren plegua.
 - 10.9. Azkentzea bide-garbiketa, eraikin-garbiketa eta berdeguneen eta kirol-azpiegituren mantentze-lanetarako kontratuak.
 - 10.10. Araztea aurrekontuz kanpoko kontuen saldoak, gero horiek egokitu edo baja emateko.
 - 10.11. Urbanizatzea Irribarria kalea eta horri lotutako kaleak, oztopoak kentzearen eta sareak osatzearen bidez.
- Azken puntua) Galde-eskeak.

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Alkatetzaren ebazpena, ate itxiko ezohiko bilkura egiteari buruzkoa.

Alkate jaunaren aginduz, idazkariak honako hau adierazi du: COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak modu hertsatzailean mugatzen du mugikortasuna. Hortaz, pertsonen joan-etorrien askatasuna mugatzea arautzen duen 7. artikulua ezartzen du, alarma-egoerak dirauen bitartean, jendeak erabilera publikoko errepideetatik soilik zirkulatu ahal izango duela jarduera kopuru mugatu bat burutzeko; baimenduta dauden jarduera horien barnean ez dira osoko bilkurak sartuko, TAOLren 70. artikuluan aurreikusitakoa gorabehera.

Egoera horretan eta alarma-egoeraren deklarazioari erreferentzia eginez, erabaki da egin daitezkeen osoko organoen bilkurak publikoak ez izatea, lan-arrazoiengatik saiora bertaratu behar ez duten pertsonen ezin izango dituztelako bilkurak ikusi.

Justifikazio horrekin, jendaurrekoa ez den osoko bilkura deitzeak ez du deuseztasun edo deuseztagarritasun akatsik.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 21.1 artikulua honako alkatearen eskumen hauek jasotzen ditu:

“m) Herri-hondamendi edo ezbeharretan nahiz horiek gertatzeko arrisku larria dagoenean, bere buruz eta bere ardurapean, neurri egoki eta beharrezkoak hartzea, eta osoko bilkurari berehala jakinaraztea”.

Gainera, TAOLren 25. artikulua ezartzen du udalerririk herri-osasungarritasunaren arloko eskumenak erabiliko dituela.

Kasu honetan babestutako ondasun juridikoa osasun publikoa da, eta osoko bilkuren publikotasunak baino garrantzi handiagoa du. Horregatik, posible da saioa egitea jendaurrekoa ez bada, TAOLren 70. artikulua saioen publikotasuna ezartzen duen arren. Kasu honetan, hori baino onura garrantzitsuagoa dago: osasun publikoa, bertaratu direnak kutsatzeko arriskua baitago.

Arrazoi horregatik legearekin bat dator Alkatetzak ebaztea hurrengo osoko bilkura jendaurrekoa ez izatea eta ateak itxita egitea; izan ere, kasu honetan osasun publikoari eragiten dioten arrazoi garrantzitsuak daude, ezohiko neurri hori justifikatzen dutenak, biztanleriaren arteko kutsatze-arriskua dela eta.

Idazkari jauna: horregatik egin da Alkatetzaren Ebazpena. Ebazpen horren arabera, 2020ko maiatzaren 20ko hurrengo osoko bilkura jendaurrekoa ez izatea erabaki da, eta ateak itxita egitea; izan ere, kasu honetan osasun publikoari eragiten dioten arrazoi garrantzitsuak

daude, ezohiko neurri hori justifikatzen dutenak, biztanleriaren arteko kutsatze-arriskua dela eta.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira. Ez da inolako adierazpenik egin.

2. Onestea 2020ko martxoaren 11ko ohiko bilkuraren akta.

Hau erabaki da:

1) Onestea 2020ko martxoaren 11ko ohiko bilkuraren akta.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

3. Onestea 2020ko martxoaren 9ko ezohiko bilkuraren akta.

Hau erabaki da:

1) Onestea 2020ko martxoaren 9ko ohiko bilkuraren akta.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

4. Bertan behera uztea 2020ko apirileko ohiko osoko bilkura eta informazio-batzordeen saioak.

463/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 14koak, alarma-egoera deklaratu zuen eta prozedura administratibo eta judizial guztien epe eta baldintza guztiak bertan behera uztea eragin zuen.

Osasun-agintariek gomendatu zuten kide anitzeko organoen bilerak ekiditea ahal zen neurrian, eta bertan behera uztea, ahal zela, bakoitzaren udalerritik kanpo egin beharrekoak.

Egoera ikusita, jakina, ez zen inolako adostasunik lortu behar. Premiazko arrazoiengatik erabakiren bat hartu behar izatekotan, Alkatetzaren Ebazpenaren bidez egin zitekeen, eta, ondoren, osoko bilkurari jakinarazi behar zitzaion bilkura egiteko data zehazteko, erabakia berrets zezan, hala bazegokion.

Hori horrela, alkatearen proposamena Bozeramaileen Batzordeari helarazi zitzaion: bertan behera uztea 2020ko apirilaren 1erako eta 8rako aurreikusitako informazio-batzordeen saioak eta ohiko osoko bilkura.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira. Ez da inolako adierazpenik egin.

5. Alarma-egoerak dirauen bitartean Udalbatzaren eskumenak eta eginkizunak gauzatzea.

Udalbatzaren 2020-V-20ko bilkuraren akta

Alkateak Udalbatzako eskumenak bere gain hartzeko aukeraren inguruko txostenaren kontu eman da. Hona hemen txosten horren laburpen bat:

Alarma-egoerak dirauen bitartean, edo egoera horren edo bere gertakari erabakigarrien ondorioz, toki-erakundea behartuta balego segurtasun publikoaren beharrezan edo arrisku larria dakarten jazoera katastrofikoaren ondorioz obrak, zerbitzuak edo hornidurak berehala edo premiaz exekutatzera edo kontratatuzera, alkateak hartu ahal izango luke bere gain eskumen hori, eskumenen banaketa legalaren arabera Udalbatzaren eskumena den arren. Hori guztia Toki-araubideari buruzko indarreko xedapenen testu bateginaren 17. artikuluan ezartzen da (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, 968/1986 TATB), bai eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan ere (17734/2017, SPKL).

Aipatutako TAOLren 21.1 m) artikulua honela dio: "1. Alkatea da udalbatzako buru eta eskumen hauek ditu:

(...)

m) Herri-hondamendi edo ezbeharretan nahiz horiek gertatzeko arrisku larria dagoenean, bere buruz eta bere ardurapean, neurri egoki eta beharrezkoak hartzea, eta osoko bilkurari berehala jakinaraztea".

Argi dago ezohiko eskumen hori alkateari dagokiola 17734/2017 SPKLaren 120. artikuluan eta TATBen 117. artikuluan aurreikusitakoaren berdinak diren ezohiko baldintzetan; hots, hondamendi-egoeretan eta arrisku larrikoetan edo horiek eragiteko arriskua duten egoeretan. Bestalde, "kasu bakoitzean erabaki beharko da zer den hondamendi edo zoritxar publikotzat hartu behar dena, kontzeptu juridikoak baitira, eta gertatuko diren arrisku larri horien existentzia ere balioztatu beharko da" (Galiziako Auzitegi Nagusiaren Epaia, administrazioarekiko auzien sala, 2. atala, 2002ko abenduaren 5a, 5966/1998 errek.). Halaber, epaiak ere adierazten du "arriskuan dauden ondasun juridikoak haztatuz zehaztu behar direla. Agerikoa da osasungarritasun publikoaz eta biztanleriaren segurtasunaz ari garenean, berehalako jarduketaren exigentziak ezin direla geroratu, eta horrek justifikatzen du udal-jarduketa, zeina kautelazkotzat jo dezakegun" (Andaluziako Auzitegi Nagusiaren Epaia, administrazioarekiko auzien sala, Granadako Egoitza, 1. atala, 1998ko martxoaren 16a, 1704/1994 errek.).

Beharrezko ezohiko egoera horietan alkateari eskumenak ematen zaizkio beharrezkoak diren obrak, zerbitzuak edo hornikuntzak berehala edo premiaz kontratatuzeko edo exekutatzeko.

TATBren bigarren puntuko 117.1.1 artikuluan aipatutako beharrezko ezohiko egoeretan, alkateari eskumenak ematen zaizkio beharrezkoak diren obrak, zerbitzuak edo hornikuntzak berehala edo premiaz kontratatuzeko edo exekutatzeko, hori guztia "kontratazio-espedita bat izapidetzeko beharrik gabe" edo "legez ezarritako eskakizun formalen menpe egon gabe", baita kreditu egoki eta nahikoa izan gabe ere (17734/2017 SPKLren 120.1. artikulua.) eta TATBren 117.1.1 artikulua).

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira. Ez da inolako adierazpenik egin.

6. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkariak, alkate-udalburuak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoen berri: 45/2020 eta 95/2020 bitartekoak. Bertaratutakoak jakinaren gainean geratu dira. Ez da inolako adierazpenik egin.

7. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.

7.1. Luzatzea udal-igerilekuko eta Udaleko beste kirol-azpiegitura batzuen zerbitzuaren kontratua.

Aurrekariak:

- 1) Oyón-Oiongo Udalak 2016ko maiatzaren 11n esleitu zion Oion deportivo ABEEari udal-igerilekuaren eta Elorri kaleko beste kirol-azpiegitura batzuen zerbitzua. Zerbitzu-kontratuaren iraupena 3 (hiru) urtekoa izango da eta 2016ko ekainaren 10ean hasi eta 2019ko ekainaren 10ean amaituko da.
- 2) Kontratuak bi luzapen izan ahalko ditu, betiere kontratuaren ezaugarriak aldatzen ez badira. Lehen luzapena 2019ko urtarrilaren 31 baino lehen adostuko da. Luzapena kontratazio-organoak adostuko du eta derrigorrezkoa izango da enpresaburuarentzat, kontratuak berariaz kontrakoa xedatzen ez badu. Halaber, luzapena ez da posible izango alderdien isilbidezko baimenaren bidez.
- 3) Aplikatzekoak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 23. artikulua eta administrazio-pleguaren bosgarren klausula.
- 4) Informazio Batzordearen bilkura batean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Luzatzea Oion deportivo ABEEekin sinatutako udal-igerilekuaren eta Elorri kaleko kirol-azpiegituren zerbitzuaren kontratua. Luzatutako zerbitzua 2021eko ekainaren 10ean amaituko da.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

7.2. Bide publikoa mahai, aulki eta mahaitxoekin okupatzeko arauak.

Alkate jaunak jakinarazi du Oyón-Oiongo Udalak bide publikoa mahai, aulki eta mahaitxoekin okupatzeko ordenantza arautzaile bat duela. Ordenantzaren testu osoa 2016ko ekainaren 3ko ALHAOn argitaratu zen.

Eusko Jaurlaritzak ezarritako okupazio-arauek ahalbidetzen dute mahaien % 50 jartzea 2019an okupatzen zuten espazio berean, eta iazko mahai kopuru bera jartzea posible bada, egin daiteke, betiere okupatutako lurzorua bikoizten bada.

Alkate jaunak gogorarazi du zein den gasolina-zerbitzugunearen egoera. Jarduera horren sustatzaileak ez du obra-lizentziarik zerbitzugunearen hegoaldean dagoen erretzeko estalpearentzat eta iparraldean kokatutako salmenta-lekuarentzat, azken hori lursail pribatuetan baitago. Salmenta-leku hori plataforma baten gainean dago, zeinak lizentziarik ez duen, aurretiazko AFAko errepideen saileko baimena behar baitu. Sustatzaileari inguruabar horren berri eman zitzaion, baina orain arte ez du AFAko errepideen saileko aurretiko baimenik aurkeztu.

Alkate jauna: Oyón-Oionen ez dago Udaltzaingorik eta Ertzaintzak du arauak betetzen direla egiaztatzeko eskumena.

Hau erabaki da:

Udalbatzaren 2020-V-20ko bilkuraren akta

- 1) Baimena ematea taberna-lizentzia duten titularrei espazio-publikoa okupatu dezaten 2019 denboraldian baimendutako mahai, aulki eta mahaitxo kopuru berarekin, espazio-publiko handiagoa okupatzen badute ere, urruntze fisikoaren araua betetzeko.
- 2) Baimena honako baldintza hauen mende jartzea:
 - a. 2016ko ekainaren 3ko ALHAOn argitaratutako bide publikoa okupatzeko ordenantza arautzailean ezarritako gainontzeko baldintzak betetzea.
 - b. Baimenak ez du inola ere ahalbidetuko zirkulaziorako espazioa okupatzea.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

7.3. Luzatzea esparru libreak, parkeak, lorategiak, ezpondak, lorategietako bideak eta zuhaiztiak mantentzeko zerbitzuaren kontratua.

Aurrekariak:

- 1) Oyón-Oiongo Udalak, 2018ko apirilaren 12ko Alkatezaren Ebazpenaren bitartez, esparru libreak, parkeak, lorategiak, ezpondak, lorategietako bideak eta zuhaiztiak mantentzeko zerbitzuen kontratua esleitu zion Agua y Jardín SLU enpresari, zeinak 74.000 euroko (+ 15.540 euroko BEZa) aurrekontua ezarri zuen. Hortaz, urteko zenbateko osoa 89.540 eurokoa da, eta 48 hilabeteko bermea eskaini du (hasiera batean aurreikusitakoaz aparte 36 hilabeteko luzapena).
- 2) Kontratuak luzapen bat (1) egiteko aukera ematen du, betiere kontratuaren baldintzak aldatzen ez badira horrek dirauen bitartean, eta esleitzeko lehiaketa kontratuaren gehieneko epea aintzat hartuta egin bada, luzapenaren aldiak kontuan izanda. Zerbitzuaren emakida 2018ko ekainaren 1ean hasiko da. Zerbitzuaren emakida 2020ko maiatzaren 31n amaituko da. Lehen luzapena kontratazio-organoak adostuko du 2020ko otsailaren 28a baino lehen. Luzapena, adostuz gero, nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, eta ezin izango da ezarri alderdien isilbidezko baimenaren bidez.
- 3) Informazio Batzordearen bilkura batean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Luzatzea esparru libreak, parkeak, lorategiak, ezpondak, lorategietako bideak eta zuhaiztiak mantentzeko zerbitzuaren kontratua Agua y Jardín SLU enpresari. Zerbitzu luzatuaren emakida 2021eko maiatzaren 31n amaituko da.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

7.4. Alderantziko lehentasunezko kaleetan trafikoa eta ibiak arautzeko udal-ordenantza.

Alderantziko lehentasunezko kaleetan trafikoa eta ibiak arautzeko udal-ordenantza bat sortzeko beharrezko izapideen eta kontsulta batzuen egoeraren kontu eman da. Kontsultak honako

Udalbatzaren 2020-V-20ko bilkuraren akta

erakunde hauei egin zaizkie: Aldundiko Errepide Zerbitzua, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua, Guardiako Ertzaintzaren Komisaria, Logroñoko Udala, Garapen Iraunkorrerako eta Trafikoko Zinegotzigoa eta [Segurtasun Saila](#). Izapideak berriro sustatuko dira alarma-egoeraren dekretuak direla-eta ezarritako epeak bertan behera geratzen direnean.

Bertaratutaak jakinaren gainean geratu dira. Ez da inolako adierazpenik egin.

7.5. Bertan behera uztea lorategi pribatuei ureztatzeko ura hornitzeko zerbitzua.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oiongo Udala Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren ur-emakida baten titularra da. Emakida ureztatzaileen komunitate bati eman zaio eta, beraz, udal hau ureztatzaileen komunitateko kide da.
2. Udalak ureztatzeko uraren (ur ez-edangarria) emakida erabiltzen du bere berdegune publikoak ureztatzeko; ura hartzen du horretarako sortu den ureztapen-sareko hargune batetik.
3. Uren Legearen testu bateginaren 61.2 artikulua arabera, “ematen den ura emakida-tituluan jasotako erabileretarako esleituko da, eta ezin izango da beste erabileretarako erabili, ezta, ureztapenen kasuan, beste lurzoruetarako ere, 67. artikuluan aurreikusitako salbuespenekin”.
4. Udalak, mende hasieran, berdegune pribatuak ureztatzeko urarekin ureztatzeko baimenak eman zituen.
5. Ureztatzeko ur-sareak, gutxienez 2016tik, mikro-ihes ugari ditu, eta, sarea irekita badago, horrek egunero 80.000 litro ur galtzea eragiten du. Galera hori arriskutsua da ezin izan delako zehaztu nora doan ihes egiten duen ur hori, eta, gainera, kostu handia ekartzen dio Udalari, ureztatzaileen komunitatearen aurrean ordaindu behar duena. Kaltetutako ur-sarea aldatzeko eta ureztatze-sare berria exekutatzeko aurrekontua 250.000 euro baino gehiagokoa da. Aurrekontu horrek barnean hartzen du oraingo sarea aldatzea, besterik gabe, ez ordea zerbitzu hori udalerriko beste eremu batzuetan edota beste erabiltzaile potentzialemateko moduko azpiegitura ezartzea.
6. Edangarria ez den uraren - berdegune pribatuak ureztatzeko uraren horniketa ez da halabeharrezko zerbitzua, ura edangarria ez delako; hots, ez da 7/1985 Legearen 25. artikuluan zerrendatutako berezko eskumena, baizik eta berezkoa ez den eskumena da, eta hori onesteko 7/1985 Legearen 7.4 artikuluan jasotako baldintzak bete beharko dira.
7. Berdegune pribatuei ureztatzeko ura, edangarria ez dena, hornitzeak eta, aldi berean, erabiltzaile horiei ur edangarria hornitzeak arrisku batzuk dakartza, esaterako, zebra-muskuiluak ur edangarriaren sarea inbaditzea edo ureztatzeko ura edategatiko intoxikazioak gertatzea. Kalte horiek Udalak aurre egin beharreko ondare-erantzukizunagatiko erreklamazioak eragin ditzakete.
8. Administrazio honek 2018ko apirilaren 13an erabaki zuen berdegune pribatuak ureztatzeko ur-zerbitzua zorrozki murriztea, honako baldintza hauetan: asteleheneko 20:00etatik astearteko 08:00etara eta osteguneko 20:00etatik ostiraleko 08:00etara. Zerbitzu hori eman izan da Udala bere berdeguneak ureztatzen hasi zenetik. Zerbitzu horren emakida 2019ko urriaren 31n amaitu zen.
9. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Oyón-Oiongo Udalari baimendutako ureztatzeko ur-horniketa murriztua da emariari dagokionez, eta ez du aukerarik ematen eskatzaile guztiei zerbitzua ematen zaiela bermatzeko. Gaur egun, hirurogei erabiltzaile inguru daude. Udalak ezin du sarbide unibertsala bermatu berdegune pribatuetarako ur-horniketa zerbitzua erabili nahi duten pertsona guztientzat.
10. Informazio Batzordearen bilkura batean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Etetea edangarria ez den ureztatzeko uraren horniketa-zerbitzua berdegune pribatuak ureztatzeko.
Arrazoa:
 - a) Edangarria ez den uraren horniketa (berdegune pribatuak ureztatzeko ura) ez da halabeharrezko zerbitzua, ura edangarria ez delako; hots, ez da 7/1985 Legearen 25. artikuluan zerrendatutako berezko eskumena.
 - b) Udalak ezin du sarbide unibertsala bermatu berdegune pribatueterako ur-horniketa zerbitzua erabili nahi duten pertsona guztientzat.
- 2) Espedientea entzunaldi publikoan jartzea hamar (10) eguneko epean, eta iragarki baten bidez argitaratzea Udaleko ohar-taulan eta ALHAOn, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua arabera.
- 3) Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, zerbitzua azkentzeko erabakia behin betikotzat jotzea.
- 4) Erabaki honen berri ematea Oyón-Oiongo ureztatzaileen komunitateari, zeinak eskumena duen aprobetxatuko den ur hori administratzeko, banatzeko eta zaintzeko, barne-autonomiaren erregimenean eta zuzenean.
- 5) Erabaki honen berri ematea Arabako Errioxako Urkidetzari, zeina administrazio eskuduna den giza-kontsumorako ur edangarria hornitzeko eskualdeko azpiegiturei lotutako ustiapenari dagokionez eta edateko uren araztegien eta hondakin-uren bilketa-sareari dagokionez.
- 6) Erabaki honen berri ematea Arabako Foru Aldundiari eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari.
- 7) Alkatetza ahalduntzea erabaki hau eraginkorra izan dadila bermatzeko beharrezkoak diren jarduketak eta ebazpenak eman ditzan.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Alkate jauna: Ez da diru-kontua, baizik eta segurtasun-kontua. Ihes bat dago, ureztatzeko 80.000 litro urekoa; beraz, arriskua begi-bistakoa da. Ez dut erabaki hau atseginez hartu.

7.6. EH Bildu Oion taldearen mozioa, zerbitzuak udalekotzeari buruzkoa.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): EH Bildu Oion taldeak eskatzen du Udaltzaren har dezan bere gain bide-garbitzaren eta lorategien zerbitzuen kudeaketa. EH Bildu Oion taldearen mozioak defendatzen zuen aukera horrek ahalbidetuko zuela “langileen lan-baldintzak hobetzea, enplegu duina sortzea, kudeaketaren efizientzia hobetzea eta onura ekonomikoa ekartzea Udaleko diru-kutxei.”

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): udalerrriak Euskal Herriko langabezia-tasarik altuenetarikoa du, eta, hortaz, udal honen lehentasuna izan beharko litzateke langabeziaren aurka borrokatzea eta kalitatezko eta epe luzerako enplegua sortzen saiatzea. Gaur egun, Oyón-Oiongo Udalak, urtero, 130.000 euro bideratzen ditu bideak garbitzeko eta beste 120.000 euro lorategiak mantentzeko.

Alkate jaunak EAJ-PNV taldearen zuzenketaren kontu eman du: Zerbitzu baten udalekotzeari buruz erabakitzeke, publiko bihurtzearen ondorio ekonomikoak aztertu behar dira, baita horrek enpresa kontratistetan zerbitzua ematen duten pertsonentzat ekar ditzakeen gizarte- eta lan-ondorioak ere.

EAJ-PNV taldeak EH Bildu Oion taldeak aurkeztutako zerbitzuak udalekotzeari buruzko mozioari egindako zuzenketaren inguruan bozkatu da. Zuzenketa onesten bada, mozioa bertan behera geratuko da, eta ez da horren inguruan bozkatuko.

Aldeko 6 (sei) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion).
4 (lau) abstentzio: Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Zuzenketa onetsi da eta mozioa bertan behera geratu da. Onetsitako mozioaren testua osorik transkribatu da:

- 1) Oyón-Oiongo Udalak, zabor-bilketa eta lorezaintza-zerbitzuen esleipen berria egin baino lehenago, azterketa ekonomiko eta sozial bat egingo du Udalak horiek berreskuratzeari buruz, zeinak aintzat hartuko dituen orain zerbitzua ematen ari diren langileen lan- eta ekonomia-ondorioak.
- 2) Oyón-Oiongo Udalak, azterketa horren datuekin, kontratatzeke aukera posibleen inguruan ikertuko du eta Udalarentzat egokiena den erabakia hartuko du.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzuen privatizazioarekin amaitzeko norabide zuzenean emandako pausua da, eta geure burua eskaintzen dugu azterketa egiteke.

Alkate jauna: Aproposena izango da azterketa hori Gobernu Taldeak enkargatzea.

8. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.

9. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea.

10. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.

10.1. Tasen eta zergen bilketa bertan behera uzteke alkatetzaren ebazpena.

Alkate jaunak Alkatetzaren ebazpen baten berri eman du, zeinaren bidez tasen eta zergen kobrantza bertan behera uzten den; aurretik Bozeramaileen Batzordearekin eztabaidatu zen gai hau. Alarma-egoera ezarri zen egunean, ibilgailuen gaineko zerga biltzen ari ginen, eta bilketa hori ez zen eten, eteteak onura baino arazo gehiago sor zitzakeelako. Alkatetzaren eskumena den arren, ez dut nire burua goraipatu nahi, eta, hortaz, gaiaren inguruan bozkatuko dugu.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2020 ekitaldiko Udaleko zerga-egutegiaren aldaketa.
- 2) Bertan behera uztea zergen eta tasen ordainketa prozedurak 2020ko martxoaren 18tik aurrera, alarma-dekretuek prozedura horiek berrabiarazi arte.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

10.2 COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari erantzuteko laguntza-programetarako deialdien zerrenda.

Alkate jaunak COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko laguntza-programen kontu eman du; zehazki, enpresa txiki eta ertainei, bakarkako enpresaburuei eta langile autonomoei laguntzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoen programa da, martxoaren 31ko 50/2020 Dekretuan araututakoa.

Era berean, Lanbideren ezohiko laguntzen deialdiaren kontu eman du. Laguntza horiek beren konturako langileentzat zein autonomoentzat dira, beren jarduera bertan behera geratu bada COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera ezarri delako.

“Bideratu COVID-19” programaren kontu ere eman du, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarena. Programa horretako laguntzen helburua da COVID-19aren eragin ekonomikoa jasan duten enpresak berregituratzea eta horiei beste bultzada bat ematea.

Azkenik, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko apirilaren 8ko Aginduaren kontu eman du. Agindu horrek bigarren aldiz zuzendu zuen Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko abenduaren 17ko Agindua, zeinaren bidez ezarri ziren 2020. urterako Gizarte Larrialdietarako Laguntzen kostu zehatzentzako mugak, horien estaldurarako kredituak banatzeko irizpideak eta 2020an Euskadiko autonomia-erkidego bakoitzeko lurralde historiko eta udal bakoitzari dagokien aurrekontu-muga. 2020rako Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) programaren kreditua handitzeko ezohiko partida handiagotzea.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira. Ez da inolako adierazpenik egin.

10.3 Daniel Salvador zinegotziaren mozioa, Oyón-Oiongo ekonomia berraktibatzeke mahai politiko eta soziala sortzeko.

Alkate jaunak adierazi du, maiatzaren 20ko 07:10ean Salvador Adán zinegotziak erregistro telematikoa idatzi bat aurkeztu duela. Horren bidez, 2020ko maiatzaren 20ko osoko bilkurako gai-zerrendatik honako puntu hauek kentzeko eskatu du: 10.3, 10.4, 10,5 eta 10.6; hots, aurkeztutako mozioak.

Beloqui jauna (PP): Ez du zentzurik mozio baten inguruan eztabaidatzea mozioa aurkeztu zuen pertsona ez bada bertaratu.

Gamarra López Brea jauna (PSE-EE PSOE): Mozioak kendu nahi ditu, baina inolako argudiorik gabe.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Nik uste mozioak kendu beharko genituzkeela, mahai politiko eta soziala sortzeari buruzkoa salbu. Nire aburuz, gainontzeko mozioetan aurkezten diren neurriak eta eskaerak mahaian eztabaidatu beharko lirateke.

Alkate jauna: Mozioak aurkezten dituen pertsona berak horiek kentzea eskatzen duenetan, kentzearen aldekoa naiz. Mahaia sortzeko mozioak proposatzen du herriak aukeratu dituen zinegotzi batzuk kanpoan uztea eta inolako ordezkartzarik ez duten kolektiboek parte hartzea. Salvador jaunak esan zuen babes zibilerako talde bat sortzeak ez zuela kosturik izango; horrek

islatzen du ez dagoela mozioa oinarritzeko azterketarik. Presa handiegirekin aurkeztu zen 150.000 euroko aurrekontu-partidaren mozioa. Diputatu Nagusiak jakinarazi zigun lurraldeko zerga-bilketak % 25eko beherakada jasan zuela, eta horrek TEFFFren ekarpenean eragingo duela. Foru Aldundiaren baldintzarik gabeko ekarpenak administrazio honetako diru-sarreraren aurrekontuaren % 55,11 hartzen du. TEFFFren ekarpena IV. kapituluko partida nagusia da eta horretarako 1.824.546 euroko aurrekontua egin genuen; horietatik hiru laurden murriztuko dira. Mozioan proposatutako zerga-neurriek ez dute ia eraginik izango enpresengan.

Idazkari jauna: Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 92. artikulua zinegotzietan bi aukera eskaintzen dizkie. Horietako lehenengoa da eztabaidan zehar eskatzea gai-zerrendatik dokumentuak kentzeko edo txostenak sartzeko. Bigarren aukera da eztabaidan zehar eskatzea gaia mahai gainean uzteko, hurrengo bilkuran horri buruz eztabaidatzeko. Bi kasu horietan, eztabaida amaitzean, eskaeraren inguruan bozkatzen da, gaiari berari buruz bozkatu baino lehen.

Mozioa kentzea proposatu duen pertsona mozio horiek proposatu zituen pertsona bera da. Ez da egin aurkeztutako mozioen zuzenketarik, banakako botorik, etab.; beraz, ez da beharrezkoa izango beste talde edo zinegotzietan entzunaldirik eskaintzea. Arauak mozioak eztabaidan zehar kendu behar direla dio, baina mozioak aurkeztu zituen zinegotziaren nahia (ezin izan du bertaratu lan-arrazoiengatik) argia da.

Eskaeraren edukitik ulertu behar dugun gauza bakarra da zinegotziak eskatu duela gai-zerrendatik aurkeztutako mozioak kentzea, ez ordea hurrengo bilkuran eztabaidatzeko zain uztea.

Aurrekariak:

- 1) Salvador Adán zinegotziak eskatu zuen berak aurkeztutako mozioak (10.3, 10.4, 10.5 eta 10.6 puntuak) gai-zerrendatik kentzea.
- 2) Aplikatzekoa da Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 92. artikulua.

Hau erabaki da:

- 1) Kentzea honako gai hauek gai-zerrendatik:
 - Daniel Salvador zinegotziaren mozioa, Oyón-Oiongo ekonomia berraktibatzeke mahai politiko eta soziala sortzeko.
 - Daniel Salvador zinegotziaren mozioa, udalerrian Babes Zibileko talde bat sortzeko.
 - Daniel Salvador zinegotziaren mozioa, ehun sozioekonomikoa berreskuratzeko 150.000 euroko aurrekontu-partida onesteko.
 - Daniel Salvador zinegotziaren mozioa, zerga-neurriek eta kostuen murrizketari buruzkoa.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

10.7 2019 ekitaldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren ebaluazioa.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 12. artikularekin bat etorritik, plan honen betetze-mailaren kontrolerik ateratako ondorio nagusiak aurreratu dira, zeinak 2020ko otsailaren 25eko Kontu Hartzailetzaren txostenean jasotzen diren.

- Dirulaguntzen oinarri arautzaileak onetsi beharko dira dirulaguntzen ordenantza orokorraren bidez edo dirulaguntza mota ezberdinentzako berezko ordenantza baten bidez, 38/2003 Legean ezarritakoaren arabera.
- Dirulaguntzen Lege Orokorraren 20. artikuluan aurreikusten da beharrezkoa dela Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari informazio zehatza eta osoa bidaltzea epearen barruan eta modu egokian.
- Dirulaguntzen araudiak exijitu beharko die dirulaguntzen onuradunei beren faktura ordaintzeko banku-transferentzia bitartez.
- Erakunde onuradunek emakumearen eta genero-berdintasunaren sustapenari dagozkion Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuak bete beharko dituzte.
- Araudi berriak justifikazio-kontuaren xehetasunaren eredu bat hartu behar du barne, eta, gainera, dirulaguntzak emateko dokumentazio-eskakizunak sinpletzen saiatzeko ahalegina egin behar du.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira. Ez da inolako adierazpenik egin.

10.8 Onestea zerbitzuak prozedura irekiaren, mugatuaren edo negoziatuaren bitartez kontratatzeko administrazio-klausula partikularren plegua.

Idazkari jaunak, alkate jaunaren aginduz, honako hau jakinarazi du: 2018ko azaroaren 18ko bilkuran onetsi ziren obrak prozedura irekiaren, mugatuaren edo negoziatuaren bitartez kontratatzeko administrazio-klausula partikularren pleguak.

Aurrekariak:

- 1) Aplikatzekoa den araudia:
 - Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen dituen (aurrerantzean SPKL).
 - Kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaria, 2014ko otsailaren 26koa, zeinaren bidez 2004/18/CE Zuzentaria indargabetzen den.
 - 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/UE.
 - Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuaren urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena.
 - Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua (APKLE).
 - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentaria, kontratu publikoak esleitzeko prozeduren koordinazioari buruzkoa.
 - Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (TAOL).
 - Toki-araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onetsi duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua (TATB).
 - Toki-erakundearen antolaketa, jardura eta araubide juridikoaren araudiari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua (AJA).
 - Toki-ogasunak arautzen dituen legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua (TOALTB).

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea (LPAC).
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- Valladolideko Udalaren administrazio-prozeduraren udal-erregelamendua, 1999ko irailaren 14koa (txosten honetan, VPE).

2) Zuzenbideko oharrak

- I. SPKLren 122.5 artikuluan eta bere aurrekaria den SPKLTBren 115. artikuluan aurreikusten da kontratazio-organoeak “plegu partikularren ereduak antzekoak diren kontratuen kategoria zehatz batzuentzako” onartzeko aukera. “Plegu-ereduaren” sistema (2000. urteko SPKLTBn dauden plegu “tipoak”) oinarrizko arau batzuetan oinarritzen da. Arau horiei ezaugarri partikularrak biltzen dituen taula bat erantsiko zaie, kontratu bakoitzaren datuekin bete beharrekoa. Nahiz eta zalantzan jarri daitekeen plegu bat “tipoaren” arabera egitea kontratuko antzeko “helburuen” arabera beharrezan, aipatutako “kontratuen kategorien” arauaren erreferentziak bidea ematen dio kategoria bakoitzeko (obrak, zerbitzuak eta hornidurak) orokorrenentzako kontratu tipoaren araberako pleguak sortzeari, hargatik eragotzi gabe kontratazio bakoitzean plegu-eredu horiek moldatzeko aukera (beharrezkotzat jotzen denean) edo berariaz sortu behar izatea kontratuzko helburu zehatzetarako, horien ezaugarriak pleguen ereduaren egoki sartzeko ez badira. Onesteko sinpletasun handiena bilatze aldera, hobe da plegu-eredua hartzea, administrazio-klausula orokorren pleguak baino.
- II. Ohiko esleipen- eta izapidetze-prozedura gehienak barne hartzen dituen plegu-eredu bakarra aukeratu da eta bertan jaso dira hori erabiltzea erabakitzen duten udal-sektore publikoko erakundeek gauzatu ahal dituzten kontratuentzako ezaugarriak. Horrek pleguen kopurua hirura murriztu du, baina plegu horiek nabarmen luzeagoak dira. Pleguen luzera hori honako arrazoi hauen ondoriozkoa da:
 - 1.- Pleguak barne hartzen ditu prozedura irekiak, soildutako prozedura irekia eta laburpen soilduaren modalitate berriak barne, baita mugatua eta negoziatuzko, lizitaziodun edo publizitaterik gabeko prozedurak ere. Halaber, plegu berean ohiko eta premiazko izapidetze-aukerak jasotzen dira, bai eta espedienteen aurretiazko izapidetze-aukerak ere; era berean, erregulazio harmonizatua jasan duten kontratuen berezitasunak jasotzen dira. Modu horretan, plegu-eredu ezberdinak izatea saihesten da, izan ere, prestaketa- eta exekuzio-klausulak berdinak dira kasu guztietan; esleipen fasean baino ez dira jasotzen prozedura bakoitzaren berezitasunak. Aukeren zabaltasun horri gehitzen zaizkio administrazio-publikoaren izaera ez duten udaleko sektore publikoko erakundeek erabilerarako moldaketa zehatzak, zeinak errazten dien enpresa txiki eta ertainei udal-sektore publikoko erakundeetan parte hartzea, erakunde eta organismo guztiek erabiltzen dutelako plegu-eredu bera.
 - 2.- Klausula bakoitzean aplikatzen diren legezko manu moldatuak pleguetan sartuko dira, dagokien legezko manuari eutsi besterik ez egin beharrezan. Kontratuen Legea etengabe egokitzen denez, hobetsi da une oro zein arau dagoen indarrean argi uzten duen testu bat (plegu-eredua) izatea, egokitzapenak izan ditzakeen lege batera jo beharrik gabe. Bereziki erabilgarria iruditzen zaigu lizitatzailentzat, batez ere enpresaburu txikientzat, zeintzuek ez duten legera jotzeko beharrik beren eskaintzak prestatzeko.
 - 3.- Arreta berezia eskaini zaio kontratuen exekuzioari eta kontrolari. 9/2017 SPKLk 150 alditan baino gehiagotan egiten die erreferentzia pleguei, batik bat kontratuen exekuzio-fasean. Horren ondorioz, legegileak itxi gabe utzitako gaiak (edo gehienez ere arau subsidiarioak ezartzen ditu) pleguetan arautzen ez badira, behar izatekotan, ez du tresna juridikorik edukiko. Hori bereziki garrantzitsua da ez betetzeengatik zehapenen kasuan eta horiek ezartzeko eta ordainarazteko prozeduran, edo kontratuaren behar baino

lehenagoko ebazpenen kasuan, baina baita kontratuetan eragin zuzena duten beste sektore-legeria batzuetan arautzen diren gaietan ere, zeinak pleguetan antolatu behar diren; esaterako segurtasunari, osasunari, hondakinei, azpikontratazioari, PFEZri, lan-subrogazioari eta abarrei buruzkoak.

Plegua oso luzea da berezko ezaugarrien taularekin alderatuta, azken horrek 7 orrialde baino ez dituelako (eranskinak lizitatzailerik bete beharreko ereduak dira). Horrek eskaintza bat aurkezteko interesa izan dezaketenei hala egiteko aukera ematen die, hasiera batean, oso orrialde gutxitan kontratuaren ezaugarri nagusiak ezagutzeko eta pentsatzeko lizitazioa interesatzen zaion edo ez. Aldi berean, kontratazioaren izapidea egiten duten langileak (konplexutasun teknikoa dela-eta idazkaria ala kontu-hartzailearen laguntzailea, aurrekontuen kontrolaren arduraduna) orrialde horietako datu batzuk bete besterik ez du egin beharko; horrek kontratazio-espeditze bakoitzeko izapidetze-fasea bizkortuko du.

- III. Pleguetako klausula guztiak legearen eskakizunak eta hori garatzen duten araudiak betetzen dituzte. Legeak pleguei egindako barkamenetatik berariaz eratorritako kontuez gain, pleguek ondoren zerrendatutako gaiak jasotzen dituzte, prozedurak errazteko asmoa duen arautegiaren interpretazioaren ondorioz (28.2 artikulua eskatzen duenaren arabera), eta hori da, hain zuzen, kontratazioari buruzko erkidegoko zuzentarauen helburuetako bat (jakina, SPKLk ez du helburu hori betetzen):
- a. Kontratuak paperean izapidetzeko onespena. Nahiz eta legeak ezartzen duen izapideak formatu elektronikoan soilik egingo direla (15. xedapen gehigarria) pleguak espeditzeak oraindik ere paperean izapidetzeko aukera jasotzen du. Izan ere, udaleko langileek oraindik ez dute burutu Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren prozedura elektronikoak erabiltzeko prestakuntza, eta, gainera, enpresa txiki eta ertainen gehiengoa ez dago prest aldaketa horretarako. Hala ere, helburua da 3 (hiru) urteko epean lizitazio guztiak elektronikoak izan daitezela.
 - b. Kontratazio-espeditzeak behar baino lehenago izapidetzea, behin betiko aurrekontu-gaikuntza baino lehen (4.D klausula). Aurreikuspen hori SPKLren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kasuetan berariaz jasotzen ez den arren, "A" faseko eragozpenen irismenaren aurreikuspen ez-etengarrian oinarritzen da. Pleguak kalte-ordainaren aurreikuspen bat jasotzen du, kontratuan atzera egitearen legezko kasuaren kreditu kopuru berdina finkatzen ez bada ere (SPKLren 152. artikulua eta pleguen 22. klausula).
 - c. Kontratazio-prozedura bizkortzeko, pleguek kontratazio-organoaren eskumenak kontratazio-mahaiaren presidenteari eskuordetzen dizkiote, Legeak hasiera batean organo horri ematen dizkion funtzioei dagokienez. Halere, horiek prozedura moteltzen dute, eta, gainera, ez dute aukerako ahalmenak erabiltzea ahalbidetzen, kontratazio-mahaiaren proposamenetara mugatzen dutelako. Horrela egiten da 20.4 klausulan, hasieran neurrigabetzat jo den eskaintza egin duen enpresari epea emateko eskaintza justifikatu dezan. Halaber, 21.B.4 klausulan ere modu horretan egiten da, esleipenduna izateko proposatutakoari eskatzeko esleipena egiteko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezala lizitatzailerik sailkapen-ordena formala onetsi baino lehen.
 - d. Enpresa bati baxuegia den esleipen bat egiteko orduan, bermatzeko behin betikoaren osagarria eta kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren % 5erainokoa den berme bat exijitzeko aukera legala orokortzen dela eta kontratua exekutatzeko fasean kontrola areagotzen dela aurreikusteko (azken SPKLaren 107.2 artikulua; 24.2 klausula).
 - e. Azkenik, pleguen amaieran jasotzen da aurreikuspen bat kontratatutako lanetan berehala jardun ahal izateko esleipendunak aurkako jarrera badu, kontratua suntsiarazteko espeditze bati hasiera ematen bazaio eta interes orokorreko arrazoiak badaude eta/edo

pertsonentzako eta ondasun publikoentzako arriskuak sortuko badira exekuzioa geldituz gero (60. klausula).

IV. Plegu-ereduen izapidea

Plegu-eredua onesteko ez da behar erkidegoko aholku batzordearen (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa) aldez aurretiko txostenik, izapide hori klausula orokorren pleguentzako Legearen 121. artikulua arautzen baitu. Hori dela eta, txosten hori igortzean, plegua kontratazio-organoaren onespenera eraginpean jar daiteke.

TATBren 122. artikuluan exijitzen zen plegua entzunaldi publikoan jartzea 8 egunez, baina ez da beharrezkoa: 2006-11-20ko Auzitegi Gorenaren Epaiak Auzitegi Gorenaren doktrina aldatu zuen eta indargabetu egin zituen TATBren 122. artikulua (plegua entzunaldi publikoan jartzea 8 egunez) eta Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren 121. artikulua (zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratuen pleguak, proiektuak, araudiak eta tarifak 30 egunez entzunaldi publikoan jartzea), Kontratuen Legearen erregulazioaren osoko izaeragatik, zeinak ez duen publizitatearen arloko berezitasunik ezartzen tokiko kontrataziorako. SPKLren xedapen indargabetzaileak berariaz indargabetzen du TATBren 122. artikulua.

Hala ere, pleguak udal-webgunearen eta kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko dira. Halaber, interesdunentzako berme gisa eta Udalari akatsak zuzentzeko aukera emateko, pleguetako 8.A klausulak berariaz aurreikusten du eskaintzak aurkezteko lehen 8 egunetan, jendaurrean jarriko direla proiektua, pleguak eta kontratua prestatzeko gainontzeko dokumentuak, edozein interesdunek horien gaineko alegazioak egin ditzan. Alegazio horien ondorioz erabakiko balitz dokumentu horietakoren batean sartzea eskaintzen edukiarri edo prestaketari eragin ahal dioten zuzenketak edo aldean eskubide eta betebeharrei kontratua gauzatu bitartean ondorio ekonomikoekin eragin diezaieketen zuzenketak, kontratua baztertuko litzateke, eta, behin kasuan kasuko aldaketak eginda, lizitazio berri bat egingo litzateke. Alegazioak ez badira aintzat hartzen, edo horien ondorioz adierazitako inplikazioak ez dituzten akatsen zuzenketa hutsak egiten badira, ez da eskaintzak aurkezteko epea etengo, ezta luzatuko ere, hargatik eragotzi gabe formalizatu baino lehen hautemandako akatsak zuzentzea.

V. Espedientearen fiskalizazioa

Plegu-eredu honen onspenak ez du Udaleko Kontu Hartzailtzaren legezkotasun-fiskalizaziorik behar, TOALTBaren 214. artikulua araberan, hori onesteak gastu zuzenik ez dakarrelako. Kontu Hartzailtzak etengabe kontrolatuko ditu pleguak, eta kontratazio-espediente guztiak fiskalizatuko dira.

VI. Plegu-eredua eta zuzenketa onesteko organo eskuduna

Plegu-eredu hau onesteko organo eskuduna plegu-eredua erabiltzen den obra-kontratu bakoitzeko kontratazio-organoa da. SPKLren 122.5 artikulua ezartzen du Administrazio Baldintza Berezien Pleguen onspena kontratazio-organoari dagokiola, zeinak, era berean, eskumena izango duen antzeko izaera duten maila zehatz batzuetako kontratuen plegu-ereduak onesteko.

SPKLren bigarren xedapen gehigarriaren 1. eta 2. ataletan jasotzen da kontratazio arloko eskumenen esleipena.

VII. Informazio Batzordearen bilkura batean egindako proposamena

Hau erabaki da:

- 1) Onestea zerbitzuak prozedura irekiaren (orokorra, soildua, laburpen soildua), mugatuaren eta negoziatuaren (publizitatearekin edo gabe) bidez kontratatzeko Administrazio Baldintza Berezien Plegu partikularrak, zeinak zerbitzuak kontratatzeko izapidetze arrunta, premiazkoa eta behar baino lehenagokoa arautzen dituzten. Testuak

65 klausula ditu. Onestea banakako ezaugarrien taularen eredua, kontratu bakoitzean garatuko dena.

- 2) Argitaratzea Administrazio Baldintza Berezien Pleguen testua Udalaren kontratatzailearen profilean.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

10.9 Azkentzea bide-garbiketa, eraikin-garbiketa eta berdeguneen eta kirol-azpiegituren mantentze-lanetarako kontratuak.

Aurrekariak:

1. SPKL, 209. artikulua. Kontratuak azkentzea. Kontratuak azkenduko dira, bai bete direlako, bai suntsitu direlako, 5. azpiatal honetan araututakoaren arabera hala adostu delako.
2. SPKL, 210. artikulua, a), b) eta c) letrak. Kontratuak betetzea eta emakida hartzea.
 - a. Kontratua bete dela ulertuko da kontratistak kontratua burutzen duenean, betiere haren baldintzak bete baditu eta emakida osoak Administrazioaren nahiak bete baditu.
 - b. Edonola ere, hori egiaztatzeko, Administrazioak kontratuaren xedeari harrera egiteko egintza formal eta positiboa gauzatu beharko du.
3. Epemugaren ondorioz azkentzen diren kontratuen zerrenda:
 - I. Bide-garbiketa zerbitzuen kontratua. Esleipenduna: FOCCSA. Epemuga: 2021eko uztailaren 31.
 - II. Eraikin-garbiketa zerbitzuen kontratua. Esleipenduna: Limpiezas SERECO. Epemuga: 2020ko irailaren 30a.
 - III. Berdeguneen mantentze-lanetarako zerbitzuen kontratua. Esleipenduna: Agua y Jardín SL. Epemuga: 2021eko maiatzaren 31.
 - IV. Kirol-zerbitzuen kontratua. Esleipenduna: Agua y Jardín SL ABEE. Epemuga: 2021eko ekainaren 10a.
4. Informazio Batzordearen billkura batean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Zerrendatu diren zerbitzu-kontratuak azkentzea, aipatutako epemugekin.
- 2) Azkenduko diren kontratuen kontratistei eskatzea 130. artikulua exijitzen duen informazioa: neurri horrek ekarriko dituen laneko kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko informazioa; zehazki, subrogazioaren eraginpean egongo diren laneko kontratuen baldintzak. Jasota utzi beharko dute, halaber, informazio hori aurkeztean bete egin dela artikulua honetan aurreikusitakoa.
- 3) Kontratistei eskatzea subrogazioaren xede diren langileen zerrendak aurkez ditzatela eta horietan honako hauek adieraz ditzatela: aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa eta kategoriaren xehetasunak, kontratu mota, lanaldia, antzintasun-data, kontratuaren epemuga, langile bakoitzaren urteroko soldata gordina eta subrogazioaren eraginpeko langile guztiei aplikatu dakizkiekeen indarreko hitzarmen guztiak.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

10.10 Araztea aurrekontuz kanpoko kontuen saldoak, gero horiek egokitu edo baja emateko.

Aurrekariak

- I. Txostena - Udaleko diruzain andreak igorri zuen proposamena, zeinetan honako atal hauek jasotzen diren:
 - a. Ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren espedientean, diruzaintza-geldikina kalkulatzeko, ordaintzeke dauden (ordaintzeko zailak zein ordainezinak) eskubideak kenduko dira; horien kopurua zehazteko, banan-banan edo oroharreko zenbateko bat ezartzearen bidez egin daiteke.
 - b. Eskubideak kobratzeko zailak edo kobraezinak diren zehazteko, zorren antzintasuna, zenbatekoa, sarrera mota, borondatezko epeko nola betearazpideko bilketaren portzentajeak eta toki-erakundeak ezarriko dituen balioztapide zurrak ere hartu beharko dira kontuan. Dena dela, behar bezala aintzatetsi eta kontuan hartu eta 24 hilabete baino gehiagoko antzintasuna duten eskubideak kobratzeko zailtzat edo kobraezintzat hartuko dira, behar bezala bermatuta eta likidatu daudenean eta hurrengo ekitaldian kobratzea aurreikusten denean izan ezik, orduan ez baitira eskubide horiek kendu beharko.
 - c. Eskubide bat kobratzeko zaila edo kobraezina dela pentsatzen bada ere, kontuetan ez da berez inoiz baliogabetuko.
 - d. Kobratzeko zailak edo kobraezinak diren eskubideak zehaztea berebizikoa da zuzenean eragiten diolako diruzaintza-geldikinari (murrizten du), Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 191.2 artikulua arabera. Garrantzitsua da; izan ere, diruzaintza-geldikina ondo kalkulatu ez bada, toki erakundearen benetako egoera ekonomikoari buruzko informazioa hutsaltzen du, eta, ondorioz, egoera-balantzeak ezin izango du zehaztu administrazio-erakundearen titulartasuneko baliabide ekonomikoen multzoa, zeintzuen artean eskubide ekonomikoak dauden.
 - e. Edonola ere, kobratzeko zailtzat edo kobraezintzat jotako ordaintzeke dauden eskubideak ez badira modu egokian aintzat hartzen, jarrera hori Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean (EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia) aipatutako kontabilitate-printzipioen aurkakoa izango da, bereziki zehurtasun-printzipioaren aurkakoa, zeinaren arabera ezin diren benetakoak ez diren diru-sarrerak kontabilizatu.
 - f. Azaroaren 3ko 56/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako kontabilitateko erregulazio-esparruan sartzen den kontabilitate publikoko esparru kontzeptualean finantza-zehurtasunari buruz jartzen duena transkribatu da: “baina, gainera, zehurtzia erabiltzeak ez du ekarri behar aktiboen zein diru-sarreraren gutxiespena, edo nahita gauzatutako gastuei edo betebeharrei balio handiegia ematea; izan ere, horrek neutraltasuna kenduko lioke informazioari, eta, ondorioz, horren fidagarritasuna kaltetuko luke”. Araztu eta gero, hasierako saldotik baja eman behar zaien aurrekontuz kanpoko kontzeptuen saldoa 399.913,21 eurokoa da.

- II. Aplikatzekoa den araudia
 1. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 s) artikulua.
 2. Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen seigarren titulua lehene kapitulua garatzen duen apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 94. artikulua, aurrekontuen arlokoa.
 3. Azaroaren 26ko Aurrekontuen 47/2003 Lege Orokorra.
 4. Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeen kontabilitatearen arau-esparrua onartzen duen azaroaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 56/2015 Foru Dekretua.
- III. Informazio Batzordearen bilkura batean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Onestea aurrekontuz kanpoko kontuen saldoen arazketa gero zuzentzeko edo baja emateko, Diruzaintzako proposamen-txostenean jasotako baldintzetan.
2. Behar diren kontabilitateko idazpenak egitea, aipatutako aurrekontuz kanpoko kontuen saldoen arazketa egiteko.
3. Azterketara gehitzea aurreko aurrekontu-ekitaldiaren likidazio-espeditentean ordaintzeke dauden kobratzeko zailak edo kobraezinak direnak.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

2 (bi) abstentzio: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion).

Alkate jauna bileratik irten da 21:45ean. Toki-erakundearen antolaketa, jardura eta araubide juridikoaren Araudiaren 47. artikulua azken paragrafoari jarraituz, automatikoki ordezkatu du lehene alkateorde Conchi Villanueva Gutiérrez andreak (EAJ-PNV). 21:47an, Eduardo Terroba Cabezón jaunak (EAJ-PNV) berreskuratu egin du udalburutza, bilkurara itzuli delako.

10.11. Urbanizatzea Irribarria kalea eta horri lotutako kaleak, oztopoak kentzearen eta sareak osatzearen bidez.

Aurrekariak:

- 1) Kontratazio-espeditentea “Irribarria kalea eta horri lotutako kaleak urbanizatzeko, oztopoak kentzearen eta sareak osatzearen bidez”.
- 2) 2020ko otsailaren 28an obraren harrera-akta sinatu zen. Neurketa orokorra egiteko epearen amaiera eta hurrengo 10 egunetan, obraren Zuzendaritzak obrari dagokion obra-bukaerako ziurtagiria izapidetu eta igorriko du. Obra-bukaeraren ziurtagiriarekin batera, obraren Zuzendaritzak Udalarari entregatuko dizkio Aginduen, Gertakarien eta Komunikazioen Liburua eta Segurtasuneko eta Osasuneko Gertakarien Liburua, zeinak obra-bulegoan egon ziren obraren exekuzioan zehar, plegu honetako 39.C klausulak exijitzen duen moduan. Harreraren osteko bi hilabeteko epean, Udalak exekutaturako obra-bukaeraren ziurtagiria onetsi beharko du, eta kontratistari ordainduko zaio kontratua likidatzeko.

Hau da obraren kontratuaren xehetasun ekonomikoa:

- Licitazioaren prezioa: 1.553.938,07 euro.
- Esleipenaren prezioa: 1.209.740,79 euro.

Udalbatzaren 2020-V-20ko bilkuraren akta

- Obran likidatutako aurrekontua: 1.316.698,23 euro.
- 3) Oztopoak kentzearen eta sareak osatzearen bidez Irribarria kalea eta horri lotutako kaleak urbanizatzeko obraren amaierako ziurtagiria, obra zuzendu duen Daniel Herrero Ingeniería SLPk sinatua, zeinaren kontratista Riojana de Asfaltos SA den.
- 4) Informazio Batzordearen bilkura batean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea oztopoak kentzearen eta sareak osatzearen bidez Irribarria kalea eta horri lotutako kaleak urbanizatzeko obraren amaierako ziurtagiria, obra zuzendu duen Daniel Herrero Ingeniería SLPk sinatua, zeinaren kontratista Riojana de Asfaltos SA den.
- 2) Ziurtagiria bidaltzea Arabako Foru Aldundiaren Toki Administrazioaren Zuzendaritzako Foru Planen Zerbitzura eta eskatzea dagokion laguntzaren igortzeko.
- 3) Ohartaraztea ziurtagiriek exekutututako obra barne hartzen dutela, zehaztutako epean. Igorritako ziurtagirietatik eratorrita kontratistari egindako ordainketek kontura egindako ordainketen azalpena dute, zeinak azken neurketaren arabera, aldatu eta zuzendu egin daitezkeen; ez dute edonola ere ekarriko dagozkion obren onspena eta harrera.

Aldeko 8 (zortzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

2 (bi) abstentzio: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion).

Azken puntua) Galde-eskeak.

Alkate jauna: Lehendabizi, EH Bildu Oion taldearen bozeramaileak liburutegiaren arduradunaren inguruan egindako galderei erantzungo diet. Izan ere, liburutegiko arduradunaren kontua eta LZrena izan ziren EH Bilduk orokorrean egokitzen jotzen dituen aurrekontuen aurka bozkatzearen arrazoia.

1998ko urriaren 28an ALHAOn argitaratu zen LZ, eta bertan ageri zen honako lanpostu hau: “Liburutegiko arduraduna; administrazio-egoera: jardunean; taldea: C; maila: 13; hizkuntza-eskakizuna: 2 (derrigortasun-data: 2002-12-31); kop.: 1; lanaldia: lanaldi erdia”.

Momentu horretatik, eta berrienak aipatzearen, 2012ko maiatzaren 30eko ALHAOn 2012ko LZ argitaratu zen, honako datu hauek biltzen dituena: “aldi baterako lotura iraunkorra duten kontratudun langileak, liburutegiko arduraduna; taldea: C; maila: 22; hizkuntza-eskakizuna: 2 (derrigortasun-data: 2002-12-31); kop.: 1; eskatutako titulazioa: Batxilergoa, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa”.

2015eko urtarrilaren 9ko ALHAOn hau argitaratu zen: “Liburutegiko arduraduna; taldea: C; maila: 22; hizkuntza-eskakizuna: 2; (d.d.: 2002-12-31); eskatutako titulazioa: Batxilergoa, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa. Postuaren kodea: LBBICTEC222021”.

2016ko otsailaren 26ko (ostirala) ALHAOn hau argitaratu zen: “Liburutegiko arduraduna; taldea: C; maila: 22; hizkuntza-eskakizuna: 2; (d.d.: 2002-12-31); eskatutako titulazioa: Batxilergoa, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa; lanpostuaren kodea: LBBICTEC222021”.

2017ko martxoaren 8ko (asteazkena) ALHAOn hau argitaratu zen: “Liburutegiko arduraduna; taldea: C; maila: 22; hizkuntza-eskakizuna: 2; (d.d.: 2002-12-31); kop.: 1; eskatutako titulazioa: Batxilergoa, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa; lanpostuaren kodea: LBBICTEC222021”.

2018ko martxoaren 16ko (ostirala) ALHAOn hau argitaratu zen: “Liburutegiko arduraduna; taldea: C; maila: 22; hizkuntza-eskakizuna: 2; (d.d.: 2002-12-31); eskatutako titulazioa: Batxilergoa, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa; lanpostuaren kodea: LBBIACTEC222021”.

2019ko martxoaren 13ko (asteazkena) ALHAOn hau argitaratu zen: “Liburutegiko arduraduna; taldea: C; azpitaldea: C1; maila: 22; titulazioa: EPOEren 76. artikulua; betetzeko era: EPOEren 78. artikulua; hizkuntza-eskakizuna: 3 (2002-12-31); lanpostuaren kodea: LB/BIBL/TE/C1/22/202/1”.

Egiaztatu dezakezue alkate naizenetik ez dela soldata areagotuko lukeen mailaren, kategoriaren edo beste ezeren aldaketarik gauzatu. Harritzen nau EH Bildu Oionek orain hauteman izana, jakinda taldeko bozeramailea zinegotzi dela ez aurreko legegintzalditik (2015-2019), baizik eta 2011tik. Akatsik badago, zuzenduko dugu, baina martxoko bilkurara arte ez gara konturatu, eta inork ez zituen akats horiek salatu.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Ez dakigu akatsa izan den. 2015ean konturatu ginen, eta une horretan ez genuen salatu langileari kalterik ez egiteko. Orain salatzen ari gara badakigulako erretiroa hartuko duela. Soldatek bat etorri behar dute dagozkion lanpostuak betetzeko titulazioarekin. Ez da zentzuzkoa liburutegiko arduradunak idazkari eta kontu-hartzaileak baino gehiago kobratzea (proportzioan, lanpostu bakoitzaren ardurari erreparatuta). Ohartarazi behar dizuet zortzi orduko lanaldiagatik kotizatzen ari dela, baina bere kontratua lau ordukoa dela. Gure aurkako bozka LZren kudeaketarengatik izan zen, ez liburutegiko arduradunaren kontuarengatik.

Hasteko, arrazoiak atentzioa eman digu. Hauteman dugu berari esleitutako soldata neurrigabea dela, 27.574 euro kobratzen baititu urtean lanaldi erdiagatik.

Gamarra López Brea jauna (PSE-EE PSOE): Ba al dago jarduketarik egiteke ur-araztegiari dagokionez?

Alkate jauna: Foru Aldundiak orain obraren sustatzailea den Ur Partzuergoari exijitu zion pinuak landatzeko; hori dago aurreikusita. Ur Partzuergoak obraren amaierako ziurtagiria aurkeztu du eta gure ebaluazioan lizentziaren alderdiak aztertu ditugu.

Alkate jauna: Jarduketan pinu-landaketa bat egitea aurreikusten da.

Duque Sáenz jauna (EH Bildu Oion): Hondakindegia zaharrea norbaitek 2 koltxoi bota ditu.

Alkate jauna: Bidali ieza dazue argazki geolokalizatu bat eta bertatik kenduko ditugu.

Villanueva Gutiérrez jauna (EH Bildu Oion): Noiz banatuko ditugu maskarak?

Tarragona jauna: Etxez etxeko banaketa antolatzen ari gara. Datorren astean banatuko ditugu Kuadrillak eskuratutako maskarak. Maskara berrerabilgarriak dira.

Ez da galdera gehiago egin.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2020ko maiatzaren 27an.

Udaleko idazkaria:

O E. Alkatetza.